

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikerlariak Fundiciones TSrekin elkarlanean ari dira aerosorgailuei buruzko proiektu batean.

2009/09/21

Mondragon Unibertsitatea Fundiciones TS galdategiak lideratzen duen osagai eolikoaren kalitate-metalurgikoa hobetzeko ikerketa proiektu batean parte hartzen ari da. gaur egun, TS Fundiciones galdategiak, aerosorgailu eolikoetarako osagaien munduko produkzioaren %15 ekoizten du.

Ez dago zalantzarik, energiaren sorkuntza administrazioa eta gizartea kezkatzen duen gai bat dela. Etorkizun iraunkor baterantz bagoaz ezinbestekoa da energia berriztagarrien garapena eta hazkuntza. Zehazki, energia eolikoa da azken urteetan indar gehien hartzen ari den energia berriztagarria, eta honen adierazgarri da egin diren mota honetako instalazioak.

Fundiciones TS galdategiak aerosorgailuetarako burdin nodularrez egindako zenbait osagai ekoizten ditu., 850kW-eko 4500kW-eko potentzia artekoak. Lankidetzan egiten ari den ikerketa proiektu honen helburua nagusia, dross izena duen azaleko akats bat txikitzea da. Akats hau ohiko da edukiera handiko piezak urtzerakoan. Gaur egun, akats hau urtutako metalaren eta moldeko arearen arteko erreakzio baten ondorioa da, eta mekanizazio bidez kentzen da.

Dorss-aren agerpena txikitzeko fabrikazio prozesuaren optimizazioan ari dira lanean, turbulentsiak eta oxigenoa gutxituz moldeak betetzeko orduan. Dross-a gutxitzeak koste murrizketa bat dakar, batez ere piezen azaleko mekanizazioari dagokionean, kalitatea nabarmen hobetuz eta baita osagaien lehiakortasuna ere.

